



Emakume bat eraila Soraluzen

Emakume bat erail du gizon batek, haren semeak, Soraluzen (Gipuzkoan). Aste betean, hirugarren emakumea da erailtzen dutena, Euskal Herrian.

Gertakari larri hori dela-eta, Oarsoaldeko udalek, Errenterriako Berdintasunerako Kontseiluak eta Pasaia Emakumeen Mahaiak bat egingo dugu Oarsoaldeko Mugimendu Feministek, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxako erantzun protokoloa jarraituz, **astearterako, martxoak 17rako**, deitu dituen kazerolada zaratatsuetarako dei egiten dugu. Bizi dugun larrialdi egoera dela eta, bakoitzaren balkoi eta leihoetara atera, eta **21:00etan izango da kazerolada.**

Gertakari hori dela-eta, jendaurrean eta aho batez adierazi nahi dugu emakumeenganako indarkeriaren aurkako jarrera agertuko dugula. Horrelako gertaerak ez ditugu gure gizartean onartzen, eta erakunde, elkarte eta herritarrok lanean jarraituko dugu, emakumeok indarkeria matxistarik gabe bizi gaitzen.

Era berean, Oarsoaldeko udalek, Errenterriako Berdintasunerako Kontseiluak eta Pasaia Emakumeen Mahaiak familiari gure elkartasunik beroena adierazi nahi diogu.

Emakumeen aurkako indarkeria gehiagorik ez!

Una mujer asesinada en Soraluze

Una mujer ha sido asesinada por un hombre, su hijo, en Soraluze (Guipuzcoa). Es la tercera mujer asesinada en una semana en el País Vasco.

En respuesta a este grave hecho, los ayuntamientos de Oarsoaldea, junto con el Consejo de Igualdad de Errenteria y la mesa de mujeres de Pasaia, nos sumamos a la convocatoria que han realizado los movimientos feministas de Oarsoaldea, siguiendo el protocolo de respuesta de la Marcha Mundial de las Mujeres, a las caceroladas convocadas para el **martes, 17 de marzo, a las 21.00**. Por la situación de emergencia que vivimos se realizarán desde balcones y ventanas.

Ante este hecho, queremos mostrar públicamente y de manera unánime nuestro rechazo a la violencia contra las mujeres. Este tipo de hechos no tienen cabida en nuestra sociedad y, por tanto, debemos seguir trabajando, tanto desde las instituciones y movimientos asociativos, como desde la ciudadanía, para que las mujeres podamos vivir libres de violencia machista.

Así mismo, los ayuntamientos de Oarsoaldea, junto con el Consejo de Igualdad de Errenteria y la Mesa de las Mujeres de Pasaia, queremos mostrar nuestro más sentido apoyo y solidaridad a la familia.

¡No más violencia contra las mujeres!

2020-03-16